

opusdei.org

Mons Fernando Ocariz prelatu berria

Frantzisko Aita Santuak
izendatu du

2017 Urt 26

Gaur, arratsalde amaieran,
Frantzisko Aita Santuak Mons.
Fernando Ocáriz Braña Opus Deiko
Prelatu izendatu du. Aita Santuak
egun honetan bertan baieztatu du
prelatutzako hirugarren
hautapenezko kongresuak egindako
hautaketa.

Izendapen honen bidez, Mons.
Fernando Ocariz, orain arte Opus
Deiko bikario laguntzaile zena, *san
Josemariaren hirugarren ondorengo*
bihurtzen da Prelatutzako buru
bezala, joan den abenduaren 12an
Mons. Javier Echevarria hil ondoren.

Mons. Fernando Ocariz, Gerra
Zibilaren ondorioz (1936-1939)
Frantzian atzerriratu izan zen
familia bateko seme, Parisen jaio zen
1944ko urriaren 27an. Zortzi
senideen artean gazteena da.

Bartzelonako Unibertsitatean
Zientzia Fisikoetan Lizentziatua
(1966) eta Lateranoko Unibertsitate
Pontifikalean, Teologian (1969).
Teologiako Doktoregoa 1971n lortu
zuen Nafarroako Unibertsitatean.
Urte horretan bertan apaiztu zen.
Apaiztu ondoren, lehen urteetan
gazte eta unibertsitarioen
apostolutzaz arduratu zen batez ere.

1994tik aurrera Opus Deiko Bikario Orokorra izan da eta 2014an prelatutzaren bikario laguntzaile izendatua izan zen. Azken 22 urte hauetan, aurreko prelatu Mons. Javier Echevarriari lagundu dio 70 nazio baino gehiagotara egin zituen bisita pastoraletan. 1960ko hamarkadan, Teologiaren ikasle zela, *San Josemaría, Opus Deiren Fundatzailearekin* bizi izan zen Erroman. Gaztetandik tenis zalea da, eta oraindik ere kirol hori praktikatzen du.

Datozen egunetan, prelatu berriak kongresistei bere bikario berrien izenak proposatuko dizkie, hala nola datorren 8 urteetan zehar lagunduko dioten kontseiluetako kide berrienak.

fernando-ocariz-prelatu-berria/ (2025
Abu 5)